

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Goi-mailako zikloa amaitu berri dugun lau lankide gara. Aho eta hortzen higiene zikloa hain zuzen ere, bi urte hauetan hainbat gauza ikasi ditugu. Kontzeptu nagusia biztanleriaren aho eta hortzen osasuna hobetzea izan da eta honen ondorioz proiektu hau sortu dugu.



Hasiara batean Gasteizen laguntzea emateko proiektu bat egitea pentsatu genuen, baina azkenean herrialde ez garatu batere zuzentzea erabaki genuen. Han dauzkaten gabeziak handiagoak direlako.

Gure proiektua garatzeko lekua finkatzean martxan jarri ginen: balio proposamenak, merkatuaren segmentazioa, funtsezko elkarreak, diru iturriak, kanalak, bezeroarekiko harremanak, funtsezko jarduerak eta kostu egiturak garatzen.

South African Hygienist Euskal Herrian sortu dugun ONG bat da. Mfangano uhartean dagoen umezurtz-etxe batera bideratuta dago, hau Kenian kokatzen da Afrikako erdialdean dagoen herrialdea da. Etxe honetan 30 ume inguru daude, 12 urtetik beherakoa.

Gure ONG-aren helburu nagusia han bizi diren ume eta tutoreen aho eta hortzen higiene hobetzea izango da.